BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

4124

EBAZPENA, 2012ko abuztuaren 22koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, literatura-argitalpenetarako laguntzak emateko Batzorde Kalifikatzaileko kideak izendatzen dituena, eta batzorde horren osaera argitaratzen duena.

Kulturako sailburuaren 2012ko ekainaren 13ko Aginduaren bidez (2012ko ekainaren 27ko EHAA, 125. zk.), literatura-argitalpenetarako laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiten da.

Aipaturiko aginduaren 13. artikuluan xedatzen denez, Balorazio Batzorde batek prestatu eta igorriko dit diru-laguntza horiei buruzko ebazpen-proposamena, eta Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpen baten bidez, batzordekideak izendatu eta batzorde horren osaera argitaratuko da.

Horregatik, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehena.– Balorazio Batzordeko kideak izendatzea eta batzorde horren osaera –ondoren azaltzen dena– argitaratzea:

Lehendakaria: Miguel Toral López, Kultura Sustatzeko zuzendaria.

Batzordekideak:

– Pedro Unzurrunzaga Schmitz, edizio-arloko aditua.

– Lourdes Otaegi Imaz, edizio-arloko aditua.

– Ana Urrestarazu Etxaniz, Euskal Editoreen Elkarteak proposatutakoa.

– Andrés Fernández Seco, Euskadiko Editoreen Elkarteak proposatutakoa.

Batzordearen idazkaria: Marta Merino Ortiz de Landaluce, Kultura Saileko teknikaria.

Bigarrena.– Oro har, jende guztiak honen berri izan dezan, Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dezaten agintzea, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 29. artikuluan finkatutako ondorioetarako.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko abuztuaren 22a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.